

1- IRAKURRI TESTUA ARRETAZ.

DUENAK EZ DUENARI



Aspaldiko garaietan, igela
buztanduna omen zen.
Buztanduna, baina
ziraunak bezain itsua.

Satorrak, aldiz, ez omen zuen
buztanik, baina bai bi begi eder
askoak.



Munduan beti izan da jende gaiztoa eta lotsagabea, eta honela esan omen zion horietako batek satorrari:

-Nola ibil daiteke argipean horrelako animalia itsusia?



Satorrak pentsatu zuen buztanik ez zuelako esan ziola hori eta, zeharo lotsatuta, lurpean sartu omen zen betiko.

Baina satorrak gogoan zuen lurrazaleko haize freskoa eta egunero lur gainean agertzen zen. Eta egunero gauza bera egiten zuen, muturrean haizea sentitzen zuenean:

-Ai, hau zoritxarra! Zergatik jaio ote naiz ni buztanik gabe!

Eta negar egiten zuen egunero sator gaixoak.

**-Zertarako balio dubuztan dotore batek
begirik ez duenarentzat? – esan zion igelak
egun batean.**

**-Begiak? Zertarako
behar ditut nik begiak?
Gustura emango
nizkizuke nireak
buztanaren truke! –
erantzun zion satorrak.**



**-Ez da egia izango! Oraintxe bertan egingo
dugu trukea.**

**Horrelaxe egin zuten
trukea. Ordutik,
zapaburua
buztandun jaiotzen
bada ere, galdu
egiten du buztana
igel bihurtzean,
satorrari eman behar
baitio egindako tratuaeren arabera.**





1.- Galderak erantzun:

1- Zein animaliak dira protagonistak?

.....

2- Zergatik sartu zen satorra lurpean?

.....

3- Zergatik egiten zuen negar egunero satorrak?

.....

4- Nolako trukea egin zuten?

.....